

## ESTIMULAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan, ikasle batek kexua azaltzen dio tutoreari inork ez duelako egon nahi berarekin eta M eta D etengabe ari direlako bera zirikatzen eta iraintzen, berekin jolasean ez uzteaz gainera.

Ondoren, tutoreak eman ditzakeen hiru erantzun datoz. Azter ezazu bakoitzaren egokitasuna; erreferentzia gisa, “autoestimu profesionala eta gaitasun soziopertsonalak” gaian ikasi duzuna erabil dezakezu.

- A- Ez egin kasurik. Ergel hutsak dira. Saia zaitez jolasten zu bakarrik. Aspertuko dira.
- B- Ikusten dut triste zaudela. Zer esaten dizute zehazki? Zer egiten duzu zuk hori esaten dizutenean?
- C- Zu izorratzen ari dira. Beraz, horrexegatik ari zara nota eskasagoak ateratzen aurten...